

# MEREZI DUTEN EKITALDIAK

**KARBONO ARRASTOA MURRIZTU  
BALIOAK IRABAZI  
LEGATUA UTZI**

## **ENERGIA**

Energia berriztagarrien erabilera gai-zerrendan dagoen leku bat aurkitu nahi duzu?

Energia-kontzientzia duen leku baten bila bazabiltza, Bilbo da:

- Bilboko Udala eredu izaten ari da herritarrentza energia garbien erabileran. Ingurumenerako kaltegarriak diren gasak askatzen dituzten erregai fosilen kontsumoa murrizteko, hiriko elektrizitate publikoaren %100 iturri berriztagarrietatik dator.
- Udalak, Garraio publikoaren eta mugikortasun iraunkorraren aldeko apustu sendoa.

Neurri horien bidez, hirian egiten den edozein ekitaldiren eraginak eta karbono-aztarna arintzen dira.

## **HONDAKINAK**

Bilbok baliabide materialak behar bezala erabiltzen ditu, bai hiriaren egunerokotasunean, bai hirian egiten diren ekitaldietan, erabilitako materialek sortzen duten inpaktua murrizteko. Horretarako, lehenik eta behin, kontsumoa murriztea eta digitalizazioaren eta komunikazio digitalaren aldeko apustua sustatzen dira, eta, aldi berean, aztarna ekologiko txikiko materialak erabiltzea sustatzen da gaur egun.

Ezinbestean sortzen diren hondakinak ahalik eta gehien tratatu eta aprobeztatzen dira. Bilbon, hondakinen %86,25 zaborategietara ez eramateko tratatzen dira.

# MEREZI DUTEN EKITALDIAK

*KARBONO ARRASTOA MURRIZTU*

*BALIOAK IRABAZI*

*LEGATUA UTZI*

## **ELIKADURA JASANGARRIA**

Gastronomia da bisitariak gehien baloratzen duten puntuetako bat. Bilbok elikagaien arloko garai berrietara egokitzen jakin du:

- Elikadura jasangarriari buruzko prestakuntza-ikastaroak ematen dira hiriko hotel, jatetxe, lokal eta cateringetan.
- Aztarna ekologiko txikiko menuen diseinua sustatzen da.
- Tokiko produktuak erostea sustatzen da (0 km-koak), inpaktu ekologiko txikia dutenak.
- Denboraldiko produktuekin elikatzea.
- Soberakinak eman ez elikagaiak alferrik galtzea saihesten da.

## **MUGIKORTASUN JASANGARRIA**

Zure ustez, utopia bat da auto partikularra helmuga bat bisitatzeko erabiltzeari uztea?

Bilbon, posible da, garraio jasangarrien sare zabala baitu, eta, gainera, turismo-eremu, hotel eta ekitaldi-egoitza guztiak hurbil ditu:

*#BilbaoArimaBerdea*

*#BilbaoGreenSoul*



# MEREZI DUTEN EKITALDIAK

**KARBONO ARRASTOA MURRIZTU**

**BALIOAK IRABAZI**

**LEGATUA UTZI**

- Hiriko eta hiriarteko autobus hibrido eta elektrikoen zerbitzua, irisgarritasuna errazten duten arrapala mekanikoekin
- Udalaren bizikleta elektrikoen zerbitzua
- 3 metro-lineako zerbitzua
- Tranbia zerbitzua

## **URA**

Bizitzaren elementua da. Horren jakitun, Bilbok uraren %99,36 garbitzen du. Horien kontsumoak egokia izan behar du eta xahutzea saihestu behar da, baliabide preziatua eta mugatua baita, eta horiek tratatzeak energia gehiago kontsumitzea dakar. Ura eraginkortasunez erabiltzeko teknika batzuk hauek dira: iturrietan sentsoreak jartzea, tanta-jarioak eta ihesak saihestea, iturrien presioa eta emaria murriztea, soberan dagoen ura ureztatzeko berrerabiltzea eta erabilitako ura higienizatzea.

## **PERTSONAK**

Pertsonentzako jarduera bat da. Harmonia sortzen du ekitaldiaren, bertaratuen eta tokiko gizartearen artean. Gizartean eta herrian eragina duten ekintzak egiten ditu eta ondare bat uzten du (ESK Erantzukizun Sozial Korporatiboa). Guztientzako irisgarritasun iraunkorra edo ekitaldirako egokitua duten lekuak kontratatzen ditu. Lan-baldintza duinak bermatzen ditu, eta talde guztiak sartzen eta onartzen ditu. (Bilbao Convention Bureauk inpaktu sozialeko proposamenak ditu, kontsultatu).

*#BilbaoArimaBerdea*

*#BilbaoGreenSoul*

# MEREZI DUTEN EKITALDIAK

*KARBONO ARRASTOA MURRIZTU*

*BALIOAK IRABAZI*

*LEGATUA UTZI*

## **INGURUMENA**

Gozatu inguruneaz, kalterik egin gabe. Ingurumena babesteko elementuekin babestea. Hondakinak biltzeko guneak eraginkortasunez antolatzea, birziklatzea errazteko. Arreta berezia behar duten tokiak seinaleztatzea, sarbidea murrizteko, flora eta fauna babestuz. Zaindu baliabide naturalak, eta errespetatu ziklo naturaleko garairik delikatuena eta sentikorrenak. Tokiko karbono-emisioak konpentsatzea.

## **LERROKADURA ETA KOHERENTZIA**

Lerrokatu zure balioak zure hornitzaileenekin. Aukeratu esperientzia duten lekuak eta antolatzaileak, eta utzi ideiak ematen. Aukeratu tokiko eta sasoiko elikagaiak. Sustatu karbono-aztarna txikiko materialak eta standetarako berrerabilgarriak erabiltzea. Ziurtagiriak erakundearen jardueretako jardunbide egokien zantzu dira (GJHak hiriaren eta Convention Bureauren estrategien parte dira).

*#BilbaoArimaBerdea*

*#BilbaoGreenSoul*



# MEREZI DUTEN EKITALDIAK

**KARBONO ARRASTOA MURRIZTU**  
**BALIOAK IRABAZI**  
**LEGATUA UTZI**

## **KOMUNIKAZIOA**

Tokiko komunitatearekiko gardentasunak, ideiak jasoz, konfiantza sortzen du. Ekitaldira joaten direnen artean jokabide-ereduak zabaltzea, ingurumena errespetatu dezaten eta hondakinen kudeaketa indar dezaten. Ezagutu bazkideak eta jasangarritasuna aplikatzeko dituzten gaitasunak. Lortu nahi duzun hornitzailearen onena. Jakinarazi ekintza iraunkorrak. Gizartea, parte-hartzaileak eta hornitzaileak kontzientziatu. Komunikazio erraza izan alderdi interesdunekin, haien jardunari buruzko oharak hartzean eta errespetuan oinarritua.

## **EBALUAZIOA**

Neurtu emaitza ekonomikoak, karbono-aztarna eta inpaktu soziala. Alderatu inpaktu horiek aurreko ekitaldietakoekin. Konpentsatu sortu diren ondorio negatiboak. Ikasi jarduera negatiboetatik eta errepikatu jarduera positiboak.

Bilbao Convention Bureauk karbono-aztarna konpentsatzeko jarduerak eta programak ditu. Lurgaila, Formarte eta Troka elkarteek, esaterako, emisioak konpentsatu eta arintzeko ekintzak egiten dituzte.